



Arabako finalerako seikotea prest

Martxoaren 28an jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketako finala Gasteizko Europa Biltzar Jauregian; sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Otsailaren hasieran abiatu zuen bidea Arabako Bertsolari Txapelketak, eta heldu da amaierara: larunbatean jokatu da finala, Gasteizko Biltzar Jauregiko Almodena Cid aretoan, 17:30etik aurrera. Finalistak Aroa Arrizubieta Barredo, Iñaki Viñaspre Simon, Maddi Agirre Epelde, Martin Abarrategi Sarrionandia, Peru Abarrategi Sarrionandia eta Unai Anda Delika dira.

Aste honetan bertan egin da finalaren aurkezpena Biltzar Jauregian bertan, eta han izan dira sei finalistak. Arrizubieta, Viñaspre eta Peru Abarrategi aurretiaz egonak dira finaleko oholtza gainean, eta hirurek txapel bana dute. Agirre, Martin Abarrategi eta Anda, ostera, lehenengo aldiz izango dira oholtza gainean.

Larunbaterako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian eta, agortuko ez balira, egunean bertan 16:00etatik aurrera txarteldegian izango dira.

Txapela, Martxoak 3 elkarteak

Finalak txapelduna behar du, eta txapela janzteko ardura Martxoak 3 elkarteak izango du aurtengoan. Santiago Diaz de Espadak eta Nura Elorriaga Bernausek jantziko diote txapela txapeldunari, antolatzaileek adierazi dutenez, "belaunaldiartekotasuna adieraziz". 50 urte dira martxoaren 3ko sarraskia gertatu zenetik, eta Arabako Bertsozale Elkartek elkarteari aitortza egin nahi izan dio.

Txapelaz gain badira sari gehiago ere, eta hurrengoek emango dituzte: Aiaraldea Komunikabide Faktoriaren izenean Gartzten Garaio Atxurak, Gasteizko Lazarraga Kultur Elkartearen izenean Xabi Antia Zuaznabarrek, Oiongo IKA euskaltegiaren izenean Esther Mauleon Garciak, Zalduondoko Kultur Elkartearen izenean Jon Ruiz de Plnedo Lekuonak, Mendialdeko AEKren izenean Kora Madinabeitia Ezkurak eta Gorbeialdeko Zigoitia Euskaraz Elkartearen izenean Askoa Urzelai Bengoetxeak.



**JOANES
ILLARREGI MARZOL**

**ANDOAIN.
2026-03-01**

**SAHARAREN ALDEKO
BERTSO JAIALDIA.**

Azken agurrak iritsi eta zer esan behar den zalantza hobera joan dedin nahikoa ez baita hitzaren dantza. Egutegi bat eman digute polita da, ez da txantxa zai dagonari eguna luze egite' omen zaio antza beraz hemendik bidaltzen dugu indarra ta esperantza.

Bidea urratzen jarraitzeko mugarria

Abadiñoko Txanporta Kultur Etxean egin da 2026ko Euskal Herriko Bertsozale Elkarteen Batzar Nagusia; 2025 urteari itxiera eman eta 2026ko egitasmo zein aurrekontuak onartu dira.

Martxoaren 16an egin zen Abadiñoko Txanporta gunean 40. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteen Batzar Nagusia.

Oier Iurramendi koordinatzaileak eman zion hasiera batzarrari eta bera izan zen hitzartzeak harilkatzeaz arduratu zena. Sustrai Colina lehendakariitzako kideak hartu zuen hitza ondoren, eta bizi dugun momentuaren inguruko irakurketa egin zuen, gure komunitatea ez dagoelako testuingurutik salbu.

Jakina denez, 2026an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa egingo da, eta horren gainekoak azaldu zituen Ainhoa Urien lehendakariitzako kideak.

Herrialdeetako batzarrak igarota, horietako ordezkariak titularrak ekarri zituzten Euskal Herriko Batzar Nagusira. Zertzeladak zertzelada, egitasmoen indartzea, hezkuntza proiektuaren hazkundera eta errotzea, eta plazaren inguruko hausnarketak aipatu ziren.

Memoria zein egitasmoa, onartuta

Herrialdeetako lehendakari eta eragileen ondotik, Euskal Herriko eragileek hartu zuten hitza. Gai hauetaz aritu ziren: hezkuntzaz (formalaz zein aisialdiaz), ikerkuntzaz eta Xenpelar Dokumentazio Zentroaz, sustapenez (bertsogintzaz, plaza azterketaz, Lankuz), hedapenez, komunikazioaz, publizitateaz eta finantzaz. 2025ean alor horietan egindako lanen errepasoaz gain, 2026ko ekimen eta erronkak ere aipatu ziren. Guztiak onartu ziren.

Elkartasun Kutxaren egitura eta Zuzendaritzaren osaera berrituta

Ekonomiaren kudeaketan ere islatzen dira Bertsozale Elkarteen balioak eta egiteko moduak. Hala azaldu zuen Iurramendik: "proiektu bateratua da gurea, eta finantzetara ere ekartzen ditugu balio hauek".

2011n sortua da orain arte gure ezinbesteko erraminta izan den Elkartasun Kutxa. Orduan, "erabaki ekonomikoak ikuspegi bateratuarekin hartzea" adostu zen. Orduko Elkartasun Kutxak amaitu du bere ibilbidea, eta irakurketa oso positiboa da, sorrera helburua ondo baino hobeto bete baitu. Aurtengo Batzarrean aurkeztu den Elkartasun Kutxak helburu berberari erantzuten dio, oinarria ez da aldatu: "Bertsozale Elkarteen proiektuaren osotasunari oreka ekonomikoa ematea". Irizpidetze berri bat behar du, eta hori da aldatu dena, ez besterik.

Ez da ordea, hausnartu den egitura bakarra. Elkarteen egituraren dimentsioaren eta konplexutasunaren aurrean, talde eredu indartu eta ahalik eta efikazenez aritzeko, zuzendaritzaren antolaketari berri bat ere proposatu eta onartu da.

Elkarteak ere, 40 urte

2027an beteko ditu Bertsozale Elkarateak 40 urte. Urteurrena atzera begiratzeko baliatzeaz gain, nondik gatozen ikusteaz harago, aurrera egiteko ere baliatu behar dugula azaldu zuen Urienek. Aurten horretarako tarte hartuko dugula esan zen Batzarrean, hausnartzeko beste ospakizun hori antolatzeko. Bide hori komunikatearekin eskuz esku egin nahi dela esan zen, elkarateen funtsa baita komunitatea.



Abadiñoko Txanporta gunean elkartu dira bazkideak, Batzarrean. //XDZ

Nafarroa Garaiko bertsolaritza ikertzeko 2026ko proiektu deialdia deitu du Bertsozale Elkartek

4.000 euroko diru-laguntza esleituko zaio hautatzen den ikerketa proiektuari, eta ikertzaile, edo ikertzaile taldeak, urtebeteko epean gauzatu beharko du proiektua.

Nafarroako bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa sustatzeko deialdia jarri du martxan Bertsozale Elkartek. Edozein jakintza esparru oinarri hartuta egin beharko da ikerketa, beti ere Nafarroa Garaian gauzatzen den (edo gauzatu den) bertsolaritza ikertzea helburu. Gradu amaierako ikerketa proiektuak, master amaierako ikerketa proiektuak zein bestelako ikerketa proiektu monografikoak aurkeztu daitezke deialdira, beti ere unibertsitateko irakasle doktore baten zuzendaritzak bermatuta badira. Ekainaren 10erako aurkeztu behar dira proiektuak, eskatutako dokumentazioarekin batera. Ikerketan edo bertsolaritzan aditu diren hainbat lagunek osatutako batzordeak ekainaren 20a baino lehen jakinaraziko du zein izan den proiektu hautatua. Hortik aurrera, urtebeteko epea izango du ikerlariak, edo ikertzaile taldeak, proiektua gauzatu eta ikerketa lana aurkezteko. Horretarako 4.000 euroko diru-poltsa bat jasoko du.

Orain arte bezala, ikerketa proiektua aurkezteko norberak hauta dezake gaia, edozein delarik ere, bertsolaritza eta Nafarroa Garaia hartuta ikerketa esparrutzat. Hala ere, Nafarroako Bertsozale Elkarteko beharrak eta gogoak kontutan hartuta, ikergai edo lerro batzuk proposatu ditu Elkartek eta www.bertsozale.eus atarian daude ikusgai.

Deialdi honen bitartez, Nafarroa Garaiko bertsolaritzari buruzko ikerketa eragiteaz gain, ikertzaile gazteak edo hasiberriak lehen urratsak ematen lagundu nahi ditu Bertsozale Elkartek.

Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian dago; baita, proiektuaren oinarrien dokumentua eta hautagaitzak aurkezteko eskaera orria ere.



Nafarroa Garaian gauzatzen den bertsolaritza ikertzea da proiektuaren helburua. //XDZ



Puntua jarrita

NORA ESTEVEZ IBARGOYEN

Batzuetan urrunago eta besteetan gertuago bizi izan dudun arren, esango nuke beti erakarri nauela bertso munduak. Joane, zuk ez bezala, txikitan bertso-eskolarik zapaldu ez arren, eskolan lantzen genuen bertsolaritza, eta horrek utzi zuen jakin-min bat nigan hor nonbait, iaz sortu genuen Joxepa taldeak bete duena.

Hernanin urtero antolatzen da Tabernetako Bertsolari Txapelketa. Izatez, edonork parte har dezake, baina jakin badakigu "edonor" hori perfil mugatukoa izan ohi dela. Horri heldu nahi izan genion Joxepan: oholtzan bestelako gorputzen presentzia aldarrikatu, bertso ez hain onak botatzeko zilegitasuna eman geure buruari. Tabernetakoa, helburua baino gehiago, aitzakia zen agian. Guk presiorik eta epairik gabe bertsotan aritzeko gune bat nahi genuen, besterik ez.

Lehen saio haiek nostalgiaz gogoratzen ditut. Ilusio handiz hasi ginen, lagunartean, horrek guztiak nora eramango gintuen jakin gabe. Zalantzak tarteko, iaz bi taldekide igo ziren oholtzara lehenengoz, eta atzetik jarraitu diegu aurten beste bik ere. Ea datorren urtean bide beretik jarraitzerik dugun. Eta hala ez bada, ez dadila izan Joxepatarrok biltzen jarraitzeko oztopo.

Tabernetakoaren eskutik etorri da Herriartekoa ere. Joane, zure galderara itzuliz, bertan zer aurkitu dudun galdetu diot neure buruari. Egia esan ez dakit zer aurkitzea espero nuen ere. Ikusi dut, adibidez, autoexijentziari aurre egin eta fokua bidean jartzea posible dela. Topatu dut, baita ere, honen atzean dagoen komunitate oso bat, espazio berriak eraikitzen, ertzetako gorputzak erdigunean jartzen. Esango nuke horixe izan dela aurkikuntzarik politena.

Hasiberrien taldeei buruz ari garela, Klari, badakit zuek ere bertsotan egiteko bildu ohi zaretela Gasteizen. Nola sortu zen Fleki Berts eta zer da zuretzat espazio hori?

Koplak

Bertso Udalekuetako bigarren izen-emate epea, irekita

Orain arte izena emateko lehentasuna izan dute bertso eskoletako kideek edota guraso bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek. Txandatan gelditzen diren azken lekuak eskainiko zaizkio orain publiko zabalari. Getadarko 16-18 urte artekoen txanda eta Zuhatzakoa beteta daude dagoeneko, baina Getadarko beste bi txandetan izena emateko aukera dago oraindik. www.bertsozale.eus atarian dago horretarako aukera. Bertso Udalekuetan parte hartu nahi baduzu, bizkor ibili!

Poto-Finixa



Tipi-tapa, tipi-tapa!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Martxan dago Bizkaiko Taldekakoaren izen-ematea

Bizkaiko Taldekakoaren bosgarren edizioa izango da aurtengoa, eta izen-ematea zabalik dago apirilaren 12a bitarte. Udaberrian izango dira kanporaketak; finalurrekoak eta finala, berriz, Elkartaren Egunarekin batera egingo dira, irailean. Izena emateko www.bertsozale.eus atarian dago aukera. Informazio gehiagorako, idatzi edo deitu Bizkaiko Bertsozale Elkartera.

